



Alkatearen ebazpena

Ikusirik, 2026ko uztailaren 31ean eta abuztuaren 3, 7, 8 eta 9an ospatuko diren Goiburuko jaien antolaketa batzordeak 2026/05/29 datarekin aurkeztutako eskaera.

Ikusirik, Hezkuntza eta kultura Teknikariaren txostena.

Ikusirik, udal Kontuhartzaileak egindako txostena.

Ikusirik, udal Idazkariak egindako txostena.

Horrenbestez, agiri honen bitartez, ondokoa

ERABAKI DUT

1. Onartzea, Andoaingo Udala eta Sega Jaiak elkartearen artean proposatutako lankidetz hitzarmenaren sinadura, zeinak honako ezaugarriak izango dituen:

Xedea: 2026ko Goiburuko jaiak.

Dirulaguntza: 9.207,00€.

Partida: 1.0500.481.338.00.04.2026.

Indarraldia: 2026-01-01etik 2026-12-31ra.

2. Hezkuntza eta Kultura lansaileko zinegotzi ahaldunari hitzarmen hau sinatzeko ahalmena ematea.

3. Sega Jaiak elkarteari bidaltzea hitzarmenaren bi ale, Hezkuntza eta kulturako zinegotzi ahaldunak sinatuta.

4. 2026ko uztailaren 31ean eta abuztuaren 3, 7, 8 eta 9an ospatuko diren Goiburuko jaien antolaketa batzordeak aurkeztutako jai egitaraua eta aurrekontua onartzea.

5. Onartutako dirukopuru honen %60, hau da, 5.524,20€ Sega Jaiak elkarteari ordaintzea onartzea. Jai Batzordeari utzitako udal materialaren bat egoera txarrean edo apurtuta bueltatuko balute, dirulaguntzaren bigarren zatirengatik jaso beharko luketen dirukopurutik deskontatuko litzateke konponketa horren gastua. Iritsiko ez balitz, diferentziaren ordainketa egin beharko lukete.

6. Dirulaguntzaren bigarren zatia ordaindu ahal izateko, jaietako memoria, likidazioa eta bere faktura egiaztagarriak, hitzarmena sinatzen den egunetik kontatzen hasita hiru hilabeteko epean aurkeztu behar duten likidazioa eta zurigarriei oneritzia eman ondoren.

7. Kontuan izan behar dituzten sarrera eta gastuen balantzea ondo zerrendatuta eta kontzeptu bakoitzaren zenbatekoarekin aurkeztuko da, eta jai batzordeko ordezkariak sinatuta egon beharko du. Izandako sarrera guztien zerrenda ere aurkeztuko da, eta kontzeptu bakoitzaren zenbatekoa.

8.- Eskatutako behar, material eta laguntzak, zehaztuko dira.

9. Udal txozna erabiltzeko behin-betiko baimena ematea. Baimena jai egunetara lotzen da.



Andoaingo Udala

Ondoren, berehala desmontatu beharko dutelarik.

Jai Batzordeari jakinaraztea Andoaingo Udalak txoznaren erabilerarako onartuak dituen irizpideen 5. atalean diona bete beharko dutela, hau da, txoznaren erantzukizun zibilaren poliza aurkeztu beharko dutela Bastero kulturguneko bulegoetan.

Jai Batzordeari jakinaraztea Andoaingo Udalak onartuak dituen irizpideen 2.3. atalak diona bete beharko dutela, hau da *"eskataileak berak jasoko eta garraiatuko du Bachiller pabelioitik behar den lekuraino. Berdin egingo du entregatzeko unean"*. Hau koordinatzeko, noiz jaso eta noiz itzuli, Zerbitzuetako lansailako arduradunarekin (Borja Estebez/Igor Ugarte 943 300 830) koordinatu beharko dute.

Jai Batzordeari jakinaraztea, txoznan su-itzalgailu bat eduki beharko dutela.

10. Txoznaren instalazioa arautzen duen Udal Ordenantza ondo bete daitezela eskatzea eta, bereziki, 3 artikuluko atalak, eta *zaborrak eta hondakinak uzteko orduan, kale horretan Udalak eguneroko zaborrentzat jarrita dituen edukinontzietan uztea eskatzea.*

Eta, txoznetako musika gaueko programaren azken ekitaldia bukatzen den momentu berean itzuliko den betebeharrera, eta txozna berriz, gaueko ekitaldia bukatu eta 45' geroago ixtearena.

11.- *Horrez gain, baldinza hau bete beharko da: Txoznaren pertsonen duintasunaren aurkakoak diren kartelak edo ikurrak, zein indarkeria bultzatzen dituztenak ez jartzea. Baldintza hau bete ezean, emandako baimena kendu egingo da.*

12.- *Udalaren eta eragile desberdinen artean landu eta adostu diren indarkeria matxistak eragindako erasoen aurkako neurriak errespetatzea.*

13. Jai Batzordeari jakinaraztea suziriak botako dituen pertsonaren datuak jaiak hasi aurretik kultura lansailan jakinarazi behar dituztela. Eta jai batzordeari jakinaraztea ere debekatua dagoela lehergai edo pirotekniako gai arriskutsuak erabiltzea, ez badituzte Euskal Erkidegoan piroteknia artifiziozko ikuskizunak arautzen dituen, 1998.10.20an EHAOan argitaratutako Eusko Jaurlaritzaren irailaren 22ko 240/1998 Dekretuaren I. eranskinak ezarritako baldintzak betetzen.

14. Goiburuko jaien egitaraua eta behar zehatz guztien kopia Obra eta Zerbitzuak eta Udaltzaingoa lansailera helaraztea.

15. Akordio honen berri ematea jaien antolaketa batzordearen ordezkariari, eta erabaki honen berri izan bezain laster, aipatu ordezkariari eskatzea, kultura, Udaltzaintza eta Obra eta Zerbitzuetako lansailletako arduradunarekin harremanetan jartzea.

16. Akordio honen berri ematea udal Obra eta Zerbitzuak eta Kontuhartzaitza eta Udaltzaingoari.

Hala agindu eta sinatu dut, Andoaingen sinadura datan.

IDAZKARIA

ALKATEA



Andoaingo Udala

EKS | CSV: ESKU5b38d39b-d435-4863-9275-05f22b144049



Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=00910>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=00910>